

KANALAK:





DryNGo

Kanalak, enpresak eta bezeroekin komunikatzeko eta segmentu merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude.

Kanalen artean, hainbat mota bereizten dira. Bezeroekin komunikazioa izateko eta bezeroek enpresaren berri izateko, komunikazio-kanalak erabiltzen dira. Produktua salmentan jartzeko, salmenta-kanalak. Azkenik, bezeroengana produktua bideratzeko, banaketa-kanalak erabiltzen dira.

Gure enpresan kanal hauen kudeaketa, ondoren adierazi bezala burutuko da:

1. Komunikazio-kanalak:

Bezeroekin komunikatzeko internetaren bidez, gure webgunea, izango da. Bertan, gurekin kontaktatzeko beste aukerak eskeintzen ditugu; gure sare sozialak, gure korreo elektronikoa, gure telefono zenbakia. Baita ere, bezeroek zalantzak argitzeko aukera izan dezaten txat publiko bat dago eta bertan edozeinek ikus dezake beste bezeroek izandako galderak eta guk emandako erantzunak. Kanal hau egokiena da uste dugu, edozein momentuan kontaktatzeko erreztasuna eta azkartasuna eskaintzen duelako gure bezeroei.

Gure produktuaren berri izateko, kanal nagusia sare-sozialak izango dira.

2. Salmenta-kanalak:

Salmenta kanalak, bezeroei gure produktuak lortzeko eskaintzen dizkiegun modu ezberdinak izango dira, erosketa burutzeko ipinitako bide ezberdinak. Primor, Douglas, El Corte Ingles eta Eroskiko izango dira gure produktua saltzeko erabiliko ditugun kanalak. Bai denda fisikoaren bidez, bai online dendaren bidez gure produktua erosteko aukera eskaintzen dute. Guk webgunea dugu, baina erosteko momentuan, gure bezeroak aurretik aipatutako denden webguneetara bideratzen ditugu bertan erosketa prozesua gauzatu dezaten.

3. Banaketa-kanalak:

On-line dendetan gure produktua erostean, *FedEx* garraio enpresa baten bitartez egingo dugu gure produktuaren bidalketa, hau da; postaren bitartez banatuko da. Produktuarekin arazoren bat izanez gero, itzultzeko aukera egon da. Itzultzerakoan bi aukera egon dira; dirua bueltatzea edo produktua beste batengatik aldatzea.